

Iritsi zen ordua nire ametsa errealitate bihurtzeko, beraz lker eta Amaia behar den bezala agurtu eta...

Ez nuen uste hura horrelakoa izango zenik, antolatzaileek eskua hartu eta Smara izeneko herri bitxi batera abiatzen zen autobusean sartu ninduten. Nabaria zen bertako pobrezia eta momentu horretan laguntzeko edozer egiteko gai izango nintzela pentsatu nuen.

Gaua zen, eta bi hilabetetan nire "etxea" izango zen etxolara eraman ninduten, eta Marta izeneko laguntzaileak deskantsatzeko agindu zidan, biharkoa egun gogorra izango zela gogoraraziz.

Marta 30 urte inguruko emakumea zen, eta uda guztietan Saharara joaten zela kontatu zidan, eta ospitale batean lan egiten zuela.

Zeharo nekatuta nengoen, eta nire familia agurtu bezain pronto lokartu nintzen nire ametsetan murgilduz.

Egun handia izan zen hurrengoa. Denak agurtu nituen, baita denak ezagutu ere, baina uste baino lehen hasi nintzen lanean. Ospitale horretan egunak pasatu ahala, gehiago harritzen ninduen pobrezia, nahiz eta jendearen herriarekiko maitasuna nabaria izan.

Aste bat, bi, hiru, lau... azkar pasatu ziren eta eman ahal genuen guztia ematen genuen gaixo bakoitzarengatik. Baina egunak pasa eta pasa, ez zen gaixoen zerrenda inoiz amaitzen, eta nahiz eta harro egon batzuengatik egindako lanagatik, beste batzuk ere bidean utzi behar izan genituen.

Nire lana, erizain lanak egitea zen, baina asko gustatzen zitzaidan gaixotutako umeak bisitatzea joatea. Haien artean, Fatma izeneko neska bat zegoen. Heldu zen lehen egunetik esan zidaten bakar-bakarrik bizi zela, eta estu-estu heltzen ninduen, bere ama izango banintz bezala. Erreduraz beteta zegoen neskatila, eta bere aurpegiak mina irudikatzen bazuen ere, momentu guztietan zuen irribarrea ahoan, nabaria zen poza, bizitzeko gogo.

Seguru nengoen bizirik aterako zela, baina bazirudien berataz maitemindurik nengoela, ez nuen bakarrik uzteko gogorik.